



Dantza kalean, eta jendaurrean

Urnieta Dantzan jaialdiaren edizio berria ia-ia normaltasun giroan igaro zen. / 6-7

AIURRI

Udako ekitaldien aurkezpena

San Juan jaien ordezkoko gisa, kultur jarduerak antolatutako Andoaingo Udalak. Ekitaldi-sorta horrekin batera, Kale Giroan zikloa aurkeztu dute



Herri barruko kontsumoa sustatzeko bono-kanpaina berria abiarazi du Andoaingo Udalak / 2



Barberena beterrano mailako korrikalaria lehian murgildu da berriro, lesioak bazterrean utzita / 10



Ponpeya garaiko errezetarekin egindako ogia eros daiteke Arrutin, asteburu honetan / 5

Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK	GORDELEKUAK
44€ 2 m ² / BEZa barne	97€ 5 m ² / BEZa barne

- ASKOTARIKO TAMAINA ETAAZALERAK
- BIDEIOZANTZA 24 ORDU
- SARBIDE ETENGABEA

605713127

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA
Bulegoa: Muebles Itarbi
barne.eus



Otietan egin zuten aurkezpen ekitaldia, aurreko larunbatean. AIURRI

Urmuga jaialdia Otietara iritsiko da, uda honetan

"Kale giroan" udako kultur-programazioarekin euskal eszenaren aldeko apustu sendoa egin dute. Udan musika, dantza, antzerkia, bertsoa eta beste kultur jardueraz gozatzeko aukera izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Aurtengo ekitaldien artean aipamen berezia hartuko du Urmuga jaialdiko emanaldiak, Otietan bertan egingo baita datorren uztailaren 23an. Iaz abiatu zen ekimena, natura eta musika abiapuntu, Euskal Herrian barrena ibili ziren, eta aurtengo edizioan geldialdietako bat Andoainen egingo dute. Aurkezpen-ekitaldira hurbildu zen Et Incarnatus orkestrako zuzendari den Miguel Zeberio. Emanaldiak parekorik ez duela izango aurreratu zuen, "aukera paregabea izango da, aurrekaririk gabeko ikuskizunaz, natur testuinguru ikusgarrian gozatzeko".

Et Incarnatus orkestra izan ohi da talde egonkorra, eta saio bakoitzera gonbidatu ezberdinak deitzen dituzte. Leitzarango saiora, Aitor Mendiluze bertsolaria, Juantxo Arakama (Glaukoma), Xendarineko Ahizpak, Mikel Moreno (Kauta), Idoia Azurmendi eta Niko Etxart batuko dira. Ez da Leitzarango bailararen bihotzean egingo den emanaldi bakarra izango. Kimua dantza taldeak "Generoa" eman-kizuna egingo du uztailaren 17an, eta "Numenak" haur antzezlan irailaren 4rako iragarrita dago. Leitzarango saioetarako gonbidapenak Basteroko leihatilan eskuratu beharko dira.

Egitarauaren aurkezpenean, Txitxu Ruiz Hezkuntza eta Kultura zinegotziak honakoa azpimarratu nahi izan zuen: "aurtengo uda sasoian Andoainen adin, gustu eta zaletasun guztien neurrira egindako programazioa izango da".

Saio guztiak doakoak, baina gonbidapena beharko da

Sarrera guztiak ekainaren 14tik aurrera eskuratu ahal izango dira, internetez edo Kutxabanken kutxazain egokituetan, eta baita Bastero Kulturguneko leihatilan ere. Pertsonako bost gonbidapen eskuratu ahal izango direla jakinarazi du Udalak.

Kultur jarduerak udan zehar



Urmuga jaialdiko argazkia. URDANGARINI

Urmuga jaialdia Uztailaren 23an Et Incarnatus orkestrak kontzertua emango du, gonbidatu bereziekin batera. Leitzarango saiora Aitor Mendiluze, Juantxo Arakama (Glaukoma), Xendarineko Ahizpak, Mikel Moreno (Kauta) eta Niko Etxart batuko dira.



Chill Mafia. CHILL MAFIA

Musika zuzenean Gatibu, Mikel Urdangarin, Chill Mafia, Dupla, Maren, Verde Prato, AMAK, Grises edo Bulego taldeek osatuko dute Ondarretako eta Goikoplazako emanaldien zerrenda. Aski ezagunak diren proposamenak, beraz.



"Piraten istorio bat" haur antzezlan. AIURRI

Antzezlanak udan "Piraten istorio bat" haur antzerki emanaldia ekainaren 25ean, "Aquí va a pasar algo" ikuskizun komiko-poetikoa uztailaren 11n, Trapu Zaharraren "Mesede bat egitearren" irailaren 12an eta "Gazte" irailaren 25ean.



Udal Musika Eskolako Banda, 2019ko San Juan jaietan. AIURRI

"Musikari guztien inplikazioari esker gauzatuko da emanaldia"

Igande honetan, 12:30ean hasita, Udal Musika Eskolako Bandak saioa eskainiko du Basteron

Xabier Lasa ANDOAIN

Mikel Emezabal Udal Musika Eskolako Bandako zuzendaria da, eta igande honetako kontzertua oso berezia izango dela aurreratu du: "Batetik, denbora luzean eta teknikoki egoera konplikatuan aritu baikara prestatzen, seiko taldeak-eta osatuz. Musikari guztien inplikazio eta ilusioari esker burutu ahal izan dugun kontzertua da. Bestetik, berezitasun bat izango du hitzorduak, une batean tango saioa taularatuko baita, Bakartxo Arabaolaza eta Joseba Pagola dantzarien eskutik. Aldi berean,

aipatu behar dugu musika-eskolako irakasle batzuk ere gonbidatu ditugula kontzertura: hain zuzen, Myriam Ulanga eta Imanol Iribarren pianojoleak, Ane Urkizu esku soinu jolea, eta ni neu. Musika zale denak gonbidatuta zaudete emanaldira, bertan ikusiko gara!"

"ARABAOLAZA ETA PAGOLA DANTZARIEK TANGO SAIOA TAULARATUKO DUTE"

MIKEL EMEZABAL



Udal Musika Eskolako gazteen abesbatza, 2019ko Kaletxikiko jaietan. AIURRI

"Jendaurrean kantatzeko ilusioak batuko gaitu Basteron"

Ostiral honetan, 18:30etan hasia, Udal Musika Eskolako abesbatzak saioa eskainiko du Basteron

Xabier Lasa ANDOAIN

Katrin Iturralde da zuzendaria, eta ostiral arratsaldeko emanaldia nolakoa izango den aurreratu du. Ikasturteari amaiera gozoa emateko modukoa izango da: "Hiru abesbatzek osatuko dute emanaldia. Bakoi-tzak bere egitaraua prestatuta eramango du, ikasturtean gogor landutakoak. Txikiek, afrikar kantak, euskal doinuak, latinez abestutakoak... Gazteek koreografia txiki batzuk landuko dituzte. Helduek, berriz, urtean landutako erreperatorioari eutsiko diote. Azpimarratzekoa

da seiko taldeetan entseatu behar izan dutela guztiek ere, eta xede horretan astero-astero egundoko ahalegina eta prestutasuna erakutsi dutela. Jendaurrean kantatzeko ilusioak batuko gaitu Basteron, ostiralean. Gozatu egingo dugu, eta baita gozarazi ere".

"SEIKO TALDETAN EGIN BEHAR IZAN DITUGU PRESTAKETA SAIOAK"

KATRIN ITURRALDE



Oier Araolaza. GOIENA

Genero-identitatea euskal dantzan aztergai

Dantzan.eus webgunearen sortzaile eta editore den Oier Araolazak emango du hitzaldia, Basteron

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal dantzetan emakumeen eta gizonezkoen rol estereotipatuak (janzkera, erreperitorio eta dantzakera bereiziak) noiz eta nola eraiki ziren aztertuko dute, Urki dantza taldeak antolatu duen jardunaldian. Datorren ekainaren 15ean izango da, asteartearekin, 19:00tan hasita.



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



28 €

Harpidetza egiteko,
Aiarri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Ekaina-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 28 eurokoa baino ez da INOIZ EZ DA BERANDU!

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

*OHARRA: Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago



Aurkezpen ekitaldia egin zute, aurreko ostiralean. AIURRI

Ekaineko eskaintza berezia, kontsumo-bonoa

Andoaindarrak arin ibili dira, eta lehen egunetan Salkin elkarteko egoitza dagoen Agustin Leitza kalean ilarak sortu dira. 25 euro ordaindu eta 50 euro gastatzeko aukera eskaintzen du kontsumo-bonoak. Ekainean erabili behar da, nahitaez

Erredakzioa ANDOAIN

Erosketa-bonoen ekimen berria martxan da. Andoaingo Udala 75.000 euroko gastua aktibatuko delakoan dago, 1.500 bonuen bitartez zuzeneko kontsumoa ahalbidetuko baita. Bonoa erosten duenak 25 euroko gastua egingo du, eta bono horrekin erosketa ahalmena 50 euroraino igoko da. Aukera ona, beraz, eroslearentzat.

Maidar Lainez Andoaingo alkatea, Mari Jose Izagirre Sus-

tapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria zinegotzia eta Maite Ramos Salkin elkarteko presidentea izen ziren kanpaina berriaren aurkezpen ekitaldian. Haiekin batera, Petri Romero (PSE-EE), Alex Huitzi (EAJ-PNV) eta Pepe Iparragirre (Elkarrekin Podemos) ordezkariak duten alderdietako ordezkariak ere bertan izan ziren.

Izagirrek azaldu duenez, "gure merkataritzarentzat eta ostalaritzarentzat hain beharrezkoa

den pizgarri bat eskaintzea da kanpaina honen helburua, gure laguntza osoa merezi baitute kalitatearen, konfiantzaren eta Andoainekiko konpromisoaren alde egiten duten lanarengatik".

EH Bilduk ere bat egin du kanpainarekin. Bideo bidez, Jon Zulueta bozeramaileak parte hartzeko deia egin zuen: "Andoaindar guztiak animatu nahi ditugu herriko merkataritza babestea helburu duen sustapen kanpaina honekin".

Erosteko aukera, ekainean zehar



Ordutegia: 10:00-13:00 / 16:00-19:00. AIURRI

Bonoak Salkin elkartean eskura Kontsumo bonoak ekainaren 11ra bitarte erosi ahal izango dira, Salkin elkartean. 50 euro balioko du bakoitzak, eta 25 eurotan erosi ahal izango dira Salkin elkarteak Agustin Leitza kaleko 11n daukan egoitzan. Udalak 75.000 euroko balioa duten 1.500 kontsumo-bono kaleratu ditu, herriko merkataritzari eta ostalaritzari bultzada emateko asmoz. Bonoak ekainaren 30a bitarte kontsumitu ahal izango dira.



Bonoak erabiltzeko merkatalgunean afitxa agertuko da erakusleihoan. AIURRI

Herritar bat, bono bat Gehienez ere, aurkezten den NAN bakoitzeko bono bat salduko da. Erosketa kreditu-txartelarekin ordaindu beharko da, eta ez da eskudirurik onartuko. Kanpainari atxikitu diren edozein saltokietan kontsumitu ahal izango dira bonoak; euren erakusleihoetan jarriko dituzten bereizgarriekin identifikatuko dira denda horiek. Agerraldian adierazitakoaren arabera, irailean eta abenduan beste bi kanpaina abiatuko dira.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Umietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Umietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:

ALIATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Euskaldunako mendizaleak 2019an, Nafarroako Ezkaba aldean. EUSKALDUNA

Euskalduna Mendigoizale Elkartearen urteko batzarra

Zuzendaritzak agertzeko deia egin du, elkartearen etorkizuna aztertuko baita bertan

Xabier Lasa ANDOAIN

Euskalduna Mendigoizale Elkarteko kideen urteko batzarra Aita Larramendi Ikastolako pilotalekuan egingo da, larunbatean, 09:45etan hasita. Zuzendaritzak bazkideei dei berezia egin die batzarrera azal daitezen, elkartearen etorkizuna aztertuko baita bertan.

Hona zeintzuk izango diren aztergaiak: 2020ko balantze ekonomikoa, 2021erako aurrekontua, 2020an egindako jardueren balantzea, 2021erako jarduera programa, hauteskunde batzarre-rako kideak hautatzea, eta, elkartearen etorkizuna.

Zuzendaritza berritzeko deialdia

2017ko azaroan, orain dagoen zuzendaritza batzordeak elkarteko ardurak hartu zituen; 2019an hautagairik aurkeztu ez zenez, segitzea erabaki zuen. Pandemia heldu zen ondoren, eta elkartearen jarduerak eten behar izan zituzten. Azken hilabeteetan, Guillermo Alcalá, Nerea Bueno eta Fernando Otamendi zuzendaritza batzordeko kideek elkartearen gutxienezko kudeaketari heldu diote. Nolanahi ere, hiru-koteak 2021eko azaroan elkarteko erantzukizunak bertan behera utziko dituela iragarri du.

Ignacio Gomez gizarte eragilea zendu da

Ekainaren 1ean hil zen, 64 urte zituela. Atsekabe handia eragin zuen heriotzak Andoainen, kultur eragile ezaguna baitzen. Batik bat, Hogar Extremeño elkarteko ekintzaile gisa Extremadurako kultura eta folklorearen alde lan handia egin zuen

Erredakzioa ANDOAIN

Azken urteetan, Andoain eta Extremadurako herriren bat senidetzearen alde jardun zuen, jakinik komunitate hartan sustraiak dauzkaten makina bat pertsona Andoainen bizi direla. Amets hori gauzatzeko bidean, Charo Cordero Cacereseko diputazioko presidentea eta Romangordo herriko umetako lagun mina izan zuen konplizerik handiena. Zoritzarrez, baina, Cordero 2020ko abenduan hil zen. Horrenbestez, senidetzearen egitasmoak bere aldeko bi ekintzailerik sutsuenak galdu ditu oso denbora laburrean.



Ignacio Gomez Miajon de los Castuos-Hogar Extremeñoaren egoitzan. AIURRI

Hobekuntzak Aiztondo parkean

Belar artifizialaren eremua berritu eta kirol jarduerak burutzeko biltzen duen paneltxoa ipini dute. Horixe izango da jolas-parkearen eraberritzearen lehen fasea. Segidan frontoi txikietan konponketa lanak egingo dituzte. Eta, bide batez, berriro margotuko dituzte.



UDALA

Garai bateko ogia dastatzeko aukera

"Pannis Quadratus" ogi berritua Arrutin salgai izango da, ekainaren 11tik 13ra. Eskaera enkarguz egin beharko da. Beraz, interesa duenak 943 593 777 telefono zenbakira deitu behar du. Edo Arrutitik bertatik igaro.



AIURRI

Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Ekainak 2-8:**
10 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 173,47.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:**
16 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 180,14.
- **Maiatzak 19-25:**
11 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 93,41.
- **Maiatzak 12-18:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 120,10.
- **Maiatzak 5-11:**
15 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 246,86.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:**
22 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 326,93.
- **Apirilak 21-27:**
27 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 433,68.
- **Apirilak 14-20:**
38 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 447,02.
- **Apirilak 07-13:**
29 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:**
30 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 340,27.

URNIETA

- **Ekainak 2-8:**
8 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 161,06.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:**
2 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Maiatzak 19-25:**
6 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Maiatzak 12-18:**
8 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 241,58.
- **Maiatzak 5-11:**
7 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:**
7 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Apirilak 21-27:**
18 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 595,91.
- **Apirilak 14-20:**
19 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 660,33.
- **Apirilak 07-13:**
22 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 96,63.



Zaldundegi ondoko plazatzxan aritu ziren dantzariak dena eman zuten. Saio ikusgarria eskaini zuten. **AIURRI**



San Juan plazako emanaldia, gazteen eskutik. **AIURRI**



Edu Muruamendiaren sinadura daramaten koreografiak plazaratu zituzten. **AIURRI**


la-ia, garai batekoa bezala

Urnieta Dantzan jaialdiak izurritearen aurreko itxura hartu zuen, jendaurrean eta ikusleen aurrean ospatu zelako. Ez da gauza bera bideo bidezko ikuskizuna. Zuzeneko emanaldiaren xarma ondo baino hobeto islatu zen Urnietan, aurreko larunbatean



Kalean eta jendaurrean dantzari aritu ziren Egape dantza taldekoak. **AIURRI**

Urnieta Dantzan, argazkiak eta bideoak sarean



AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Egape dantza taldeko "Plus" taldea. Ezker-eskuin: Izaskun Bilbao, Arantza Iturbe, Marisa Iturbe, Jaione Jauregi, Ainhoa Garcia, Idurre Urreaga eta Leire Ibarbia. Makurtuta, Amaia Vaquero, Axun Fernandez eta Jaione Larrañaga. AIURRI



Gazteen taldea, ezker-eskuin: Jon Tolosa, Aintzane Elozegi, Ane Arruti, Ainara Isasti, Unai Iraola eta June Garcia. Makurtuta, Kaya Ginés, Alba Quel, Irati de Torres, Anne Elustondo eta Amaia Mellado. AIURRI



Zutik, Hayat Serrano, Aiara Martín, Alena Cortés, Araia García, Iratxe Del Castillo eta Oihane Vilches. Makurtuta, Nagore Campos, Nahia Inurrita, Malen Garmendia, Lide Lizeaga eta Elisa Merzouk. AIURRI



Etxeberri plazako saioaren uneetako bat. AIURRI

Kalean dantzan, eguraldia lagun

Udal pilotalekua prest zegoen, Urnieta Dantzan emanaldiaren ordezko gune izateko. Baina ez zen beharrik izan. Eguraldia lagun, San Juan plazan, Zaldundegi ondoko plazatxoan eta Etxeberri plazan ospatu zen 2021eko Urnieta Dantzan jaialdia. Antolatzaileak pozarren egon daitezke, jaialdia bikain irten zelako.



Eguerdiko emanaldiaren irudia. AIURRI



Haur, gazte eta helduak dantzari aritu ziren, larunbat eguerdian. AIURRI

“Gure familia bihurtu da Aukeran”

UNAI IRAOLA ETA UXUE SANCHEZ AUKERAN DANTZA KONPAINIA

Dantzari gazteek osatzen dute Aukeran dantza konpainiaren bizkarrezurra. Alabaina, itzal handiko koreografoa dute gidari, Edu Muruamendiarrak



Aukeran Dantza Konpainiaren taldeko argazkia. AUKERAN

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Egun batetik bestera egin zuten jauzi Unai Iraola eta Uxue Sanchez urnietarrek dantzaren esparru profesionalera, Aukeran Dantza Konpainiaren eskutik. Dantzari eta dantzazale amorratuak haurtzarotik, inork gutxi baino hobeto ezagutzen dute koreografoa eta gidaria, Edu Muruamendiarrak. Euskal folklore tradizionalari muzin egin gabe, dantza garaikidearen erritmopean mugitzen den taldea da Aukeran, konpainia anbiziotsua

bezain eskarmentuduna: datorren urtean mende laurden beteko du oholtza gainean. Beren oropuntekin arrastoa utzi dute jada Euskal Herriko makina bat plazatan.

Aukeran Dantza Konpainiako dantzariak zarete. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Unai Iraola: Oso ona. Finean, askotariko oholtzak ari gara ezagutzen, hamaika txoko; motibazioa areagotzea dakar horrek. Esperientzia ederrak ari gara bizitzen, eta ilusio handiz hartzen

dugu guztia. Gazteak gara eta bizipena zukutzen ahalegintzen gara.

Uxue Sanchez: Hasiera batean, ez ginen guztiok elkar ezagutzen. Orain lagunak gara, familia bihurtzeraino. Oso giro polita dago gurean.

Oholtza gainean nabari al da sortu duzuen talde-izaera sendoa?

U.I.: Oso inportantea da bai, oholtza gainean nabari da gure arteko konplizitatea, eta hori publikoak ikusten du. Oso harreman estua eta sendoa dugu.

Edu Muruamendiarrak gidaritzepean egiten duzue dantza. Eskarmentu handiko koreografoa da. Zer ematen dizue horrek?

U.S.: Hasi berriak gara Aukeran Dantza Konpainian; alabaina, haurrak ginenetik ezagutzen dugu Edu, gure dantza-irakaslea izan delako. Beraz, konfiantza hori badugu. Oso harro gaude berataz.

U.I.: Hori da, eta bere eskarmen-tua partekatzen du gurekin; oso aberasgarria da hori, hain zuzen ere, urte askotako ibilbidea delako dantzaren munduan.

Afizio hutsetik dantzari profesionalerako jauzia nabari al da?

U.S.: Hasieran, inpresioa eman zidan; egun batetik bestera izan zen: hots egin zigun esanez Aukeran Dantza Konpainiaren parte ginela eta bi aste bururen buruan lehen ikuskizuna gurea. Txip aldaketa egin behar izan genuen, zeren beste mundu bat baita, hots, orain artekoarekin alderatuz gero, oso-oso bestelakoa.

U.I.: Exijentzia nabarmen handitzen da. Gainera, gogoan dut: lehen emanaldia telebistan izan genuen, eta, aldiz, bigarrena Tabakaleran (*Maurizia naz emanaldia*); presio handia izan zen azken hori ere.

Denboraren poderioz, hartu al diozue tentsioari neurria?

U.S.: Orain presio hori askoz hobeto dakigu kudeatzen. Hala-ber, ikuskizunak barneratuta ditugu; behin horiek ikasita, askoz ere gusturago aritzen zara taulan.

U.I.: Hala da, niri ere garrantzitsua iruditzen zait. Azkenean, ez baldin badituzu ongi ikasita mugimenduak lehen emanaldietan urduri sentitzen zara.

Exijentzia aipatu duzue. Nola erantzuten dio horri gorputzak?

U.I.: Nork bere gorputza eta buroa kontrolatu behar ditu, edo saiatu egin behar da behintzat. Egia da exigentzia handiagoa dela eta gorputzak presio handiagoa jasan behar duela. Hala, tarteka izan ditugu ezusteko desatseginak. Beraz, ahal moduan, nork bere gorputzaren mugak ezagutu behar ditu.

"OHOLTZA GAINEAN NABARI DA GURE ARTEKO KONPLIZITEA"

UNAI IRAOLA

U.S.: Bestalde, gorputza ohitu egiten da esfortzura: hasieran, gehiago kostatzen da mugimendu jakinak egitea; orain, errazago egiten ditugu.

Zuen lehentasun bihurtu da Aukeran. Zaila al da gainerako lehentasunekin uztartzen?

U.I.: Konpromisoa dugu Aukeran Konpainiarekin, alegia, ezin diozu uko egin entsegu bati lagunekin gelditu nahi duzulako, besteak beste. Beraz, argi izan behar duzu zer ipini zeren aurretik. Bestalde, denboraren kudeaketa ere ezinbestekoa da, antolamendua.

U.S.: Baina geuk aukeratu genuen gure jardunaren ordutegia, eta, oro har, ongi datorkigu guztioi; iluntze partean biltzen gara, eta zereginak ordu horretarako amaituta izan ohi ditugu.

U.I.: Gainera, guretzat ez da sakrifizioa; gustuko dugulako aritzen gara dantzan. Ez gatoz hona behartuta; aitzitik, gure ilusioak are arinagoak bihurtzen ditu entseguak. Sakrifizioa baino gehiago, inbertsioa da.

Eta zenbat denbora ematen duzue astean inbertsio horretan?

U.S.: Astean hiru egunetan ditugu entseguak: astelehenetan, asteazkenetan eta larunbatetan. Aste-barruan, arratsalde biltzen gara, gutxi gorabehera, 19:30-22:00 bitartean. Larunbatetan, oster, goizean izan ohi dugu hitzordua, goizeko 09.30ean hasita.

Hamaika antzoki zapaldu dituzue, baita Euskal Herriko kanpo aritu ere. Inpresioa ematen al du horrek?

U.I.: Horrelako oholtza entzute-tuetan txiki sentitzen dira batzuk. Aldiz, nire kasuan, hazi egiten naiz. Victoria Eugeniak, adibidez, inpresioa ematen dit hasieran, baina behin taulara igota, hazi egiten naiz.

U.S.: Neu ere antzeko. Ez da gauza bera pilotaleku batean dantzatzea, edota hiriburuko antzokian oholtzaratzea. Lehenengoa-ri dagokionez, oso herrikoia da giroa, eta ez dago hainbeste jende, baina horrek ere badu bere xarma, ikus-entzuleak oso gertu dituzulako. Bestalde, uste dut Victoria Eugeniaren edo

"HAURRAK GINENETIK EZAGUTZEN DUGU EDU, DANTZA-IRAKASLEA IZAN DUGULAKO"

UXUE SANCHEZ

Tabakaleraren pareko agertoki batean ere ongi moldatzen gara.

Zer sentitzen duzue oholtzara igo aurreko mementuan?

U.S.: Urduritasuna beti dago, eta nire ustez ona da urduri egotea, neurritz betiere; ongi kudeatzea da gakoa.

U.I.: Elkar laguntzen gara, gainera. Norbait urduri badago, guztion artean ahalegintzen gara hura lasaitzen. Alegia, elkartasun hori badago gurean ohol-tzara igo aurreko uneetan, eta oso lagungarria da hori.

Gaur egun, zein leku dute dantzariak kultur esparruan, gizarteak?

U.I.: Nire ustez, kulturari ez zaio behar besteko garrantzia ematen, are gutxiago pandemiaren egotzeran. Esaterako, garraio publikoa jendez lepo egon ohi da, eta agertokiak neurri zorrotzak errespetatu behar dituzte, erdi hutsik gelditzeraino. Horregatik, uste dut ezinbestekoa dela kulturaren sektoreari bultzada ematea.

Hala, bertigoa ematen al du zuen ibilbidea dantzatik bideratzeak?

U.S.: Egoera zaila dela begien bistakoa da. Nahiz eta nahi izan,



Unai Iraola eta Uxue Sanchez Sarobe Arte Eszenikoen Gunean duten entsealekuan. AIURRI

badakit ez nukeela bukatuko dantzaz bizitzen, ezin dudalako. Gustatuko litzaidake, baina ez dago baldintza nahikoa horretarako, gutxietsitako sektorea da.

Pandemiak pandemia, hainbat saio izan dituzue.

U.S.: Orain hiru asteburu Madrilen izan ginen, Fitur-en, alegia, Nazioarteko Turismo Azokan. Bertan *bolo* dezente izan genituen, eta neketsua izan arren, oso gustura aritu ginen, oso giro ona baitzegoen. Orain bi aste, berriz, Beasainen izan ginen

Maurizia naz ikuskizunarekin, eta Zumaian *Biz hitza* emanaldiarekin. Eta, azkenik, dantzaren nazioarteko eguna medio, Victoria Eugenia izan ginen *Aiurri* piezarekin.

U.I.: Maiatza nahiko topera izan dugu, egia esan. Hiru egun ja-

rraian izan genituen emanaldiak, baina egun bakoitzean ikuskizun ezberdina taularatu genuen.

U.S.: Aurrera begira, ekainaren 23an Bilbon izango gara, eta hilaren 29an, ostera, Diman (Bizkaia). Azken horretan, kale-ikuskizun bat plazaratuko dugu estreinakoz.

Hitz gutxitan azalduta, zer da zuentzat Aukeran?

U.I.: Hamaika kiroletan trebatu naiz haurra nintzenetik, baina dantza izan da nire afizioetan lehena. Aukeraren entsaiatzen hasteko proposatu zidanean Eduk izugarrizko ilusioa egin zidan. Diziiplina eman dit Konpainaiak, eta horrek heldutasuna ematen dit: ehuneko ehuna eman behar duzu entseuetan eta are gehiago emanaldietan. Gure artean sortu dugun giroa izugarria da; orain bi urte hau esango bazenit, ez nuke inondik inora ere esperoko.

U.S.: Gure familia bihurtu da Aukeran. Bat-batean azaldu den gauza bat da, oso gauza potoloa, gainera. Unai bezala, makina bat kiroletan aritutakoa banaiz ere, orain, hemen nago, eta zerbaitengatik izango da hori.

Laster, uda giroko Ikusbera aldizkaria.

Aiurriko harpidedunek zenbaki berria buzoian jasoko dute!

Andoni Urbistondo URNIETA

Korrikalariari korrika kentzea bizitzen denari arnasa kentzea bezalakoa da. Halaxe ibili da azken sei urteetan Xabier Barberena, andoaindar urnietartua. Sei urte eman ditu lesioz lesio, minez min, baina orain lehiaketara itzuli da, eta domina bat irabazi. Korrika egin du berriro oinazetik gabe, eta horrek erabat betetzen du. Iraganeko mar-txa hartu nahi luke etorkizunean pixkanaka: kirola egin eta familiarerekin gozatu.

Nor da Xabier Barberena?

Urnietan bizi den andoaindarra, 55 urte ditut. Emaztea Lasarte-Oriakoa da, eta badakizu, baten edo bestearen herrian ez bizitzeagatik, ba erdian bizitzea erabaki genuen. Hiru hamarkada luze, dagoeneko.

Zein izan zen zure lehen harremana korrikarekin?

Soldadutzan. Madrilen egin nuen, Villaverde Alto herrian. Han bazen pista luze bat, belaze bat, eta lagun batekin pike bat edukitzen nuen egunero, galtzen zuenak kantinan garagardo bat ordaintzen zuen. Han gustura nenbela ikusita, etxera itzuli eta federatu egin nintzen. Oso kirolaria izan naiz betidanik, droga baten parekoa izan da, eta Donostian talde batekin elkartu nintzen: Mikel Odriozola, Kamel Ziani, Maria Luisa Irizar... Mugi Martinez zendu berria den entrenatzaileak aholkuak ematen zizkigun, 'gaur hau egin', 'bihar beste hau', eta horrela hasi nintzen. Gaztetan koadri-larekin bueltatxo bat, Andoainen, baina juerga handirik egin gabe, igandetan entrenatu edo lasterketa txikiren bat egiten nuelako. 25 urterekin egun emaztea dena ezagutu nuen, parrandak utzi, eta serioxeago hartu nuen korrika jarduna.

Beti amateurra izan zara.

Federazioko entrenatzaileak aholkulari izan ditut beti, baina entrenamenduetan-eta nire kabuz ia beti. Gorputza bera kirol batean aritu eta bost bat urtera fintzen da guztiz, nire kasuan 63 bat kiloko pisuarekin. Pixkanaka serieak egiten hasten zara, mila metrokoak 02.40ko denboran, hainbat serie atsedean tarte laburrekin. 1.500 edo 800 metroko probatan moldatu izan naiz ondoen, eta beti pisten edo erre-pidean. Mendiak ez nau sobera erakarri, batez ere azken bi hamarkadetan hartu baitu in-

“Gorriak ikusi ditut; osasuna eta gozatzeara, ez dut gehiago eskatzen”

XABIER BARBERENA BETERANOEN MAILAKO KORRIKALARIA

55 urteko korrikalariak sei urteko gurutze-bidea pasa du lesioen erruz, baina argia ikusten hasi da pixkanaka



Barberena andoaindarra da sortzez, Urnietan bizi da eta Hernaniko taldearekin lehiatzen da. GONZALEZ

darra. Herrietako lasterketa popularrak korritzea gustatu zait asko: Berastegi, Tolosa, Urnietako Herri Bira bera... Korrika saio azkar bat egin, gero antolatzaileek eskaintzen duten hamaiketakoarekin gozatu, eta egun pasa egin lagun edo familiarekin, horixe plan onena. Klub mailan Andoaingo Zumeatarran hasi nintzen, eta azken urteetan Hernaniko Klub Deportiboan nago. Hernaniko atletismo pistan aritzen naiz batez ere prestakuntza egiten.

Ze probatan aritu izan zara?

Abanikoa zabala da: hasi 800 edo 1.500 metroko probetan, eta maratoi erdiraino kabitzen diren distantzia guztiak. Behin bakarrik egin dut maratokia, Donostiakoa, eta oso gogorra egin zitzaidan, luzeegia. Maria Luisa Irizar-ekin egin nuen. 02.45 egin nuen. Prestakuntza saio luzeena 20 bat kilometrokoa bakarrik izan zen.

Behobia-Donostia lasterketa asko korrituko zenituen, ezta?

Ez pentsa. Dozena erdi bat, zazpi... Ez nago ziur. Pasa den mende bukaeran halako masifikazioa eman zen lasterketa horretan: pilaketak irteeran, erorketak, bultzakadak... eta nekatu egin nintzen Behobiarekin. Ez naiz bueltatu orduz geroztik. Egin nuen azkena eguraldi txarrekoa izan zen, Kontxa hondartzako dutxetara bidali gintuzten, eta ur berorik ez han... 01.09.50 izan da nire marka onena.

Behobia ez bada, zein da zure lasterketa kuttuna?

Asko gustatzen zait Burgosen egiten den Atapuercako krosa, bost mila metroko proba. Kanpora joatea gustukoa dut, ondo antolatutako lasterketak daude: Vallecasko Nazioarteko San Silvestre proba, Camargo, Ribadesella, Grau de Castello... Korritu, eta gero familiarekin ingurua ezagutzeko probestu.

Metodo jakinik baduzu entrenatzeko?

Sentsazioen baitan, beti. Bihoztzeko taupadak neurtzen dituen gailua badaramat, ordularian, baina ez diot kasu handirik egiten. Ondo ba nago, aurrez pentsatutakoa egin. Ondo, edo indartsu sentitzen ez banaiz, ba lasai ibili. Trotean 04.20 edo 04.30ra, eta gero serie batzuk. Korritzen hasi eta berehala jabetzen zara gorputzaldi ona daukazu edo ez.

Serieak egitea bai, nekeza...

Beno, batez ere bakarrik entrenatzen duzunean. Lasterketa betean jendearen animoekin-eta errazagoa da plus bat ematea. Bakarrik zaudenean, nekea muturrekoa da... Burua ondo jantzita eduki behar da, irauteko.

Entrenatu, asko egingo duzu. Etxean-eta ohituta egongo dira dagoeneko, ez?

Bai, astean lauzpabost egun egiten dut korrika fisikoki ondo baldin banago, baina ordubete, edo ordu eta erdiko lan saioak dira, laburrak.

Fisikoki ondo zaudenean esan duzu. Ez zara aspaldi egon...

Ez, oraintxe ari naiz puntu ona lortzen, baina bospasei urte daramatzat borrokan nahi eta ezin. 2015ean hasi zen bolada txarra, eta justu urte honetan hasi naiz buelta ematen. 2015ean pneumonia jasan nuen, ondoren bi meniskoetan ebakuntza, gero izter ondoko etena, eta 2019an oin zolako faszitisa.

Korrikalari askoren gaitzik gaiztoena da faszitisa, ezta?

Hala da. Bi urte egingo ditut laster, arazoak hasi zirenetik. Hanketako giharrak mugaraino zukutzen ditugu, eta ohiko lesioa da. Lesioak eta pisua dira gure amesgaiztoa. Bi kilo gehiago edukitzea asko nabaritzen dugu korrikalariok.

Nola jabetu zinen faszitisa zenuela?

Lasterketa bat egin ostean lanera joan nintzen (Andoingo ITASA paper enpresan aritzen da), eta txanda herren bukatzen nuela jabetu nintzen. Saiatu nintzen jarraitzen, baina geratu egin behar izan nuen, eta baja luze bat hartu nuen lanean. Meniskoetan ebakuntza egin zidan medikuak, Aritz Lizundiak,



Sei urtez aritu da lesioak bata bestearen atzetik kateatzen. GONZALEZ

garbi esan zidan, faszitiseko ebakuntzak arriskuak zituela, herren gera nintkeela betirako. Bestelako tratamendu batzuk probatu nituen, baina mina neukan tokian hatza sartze hutsarekin sekulako mina sortzen zitzaidan, jasan ezina. Talka-uhin tratamendu batekin hasi nintzen Poliklinikan. Halako bolatxo daukan pistola bat da, eta kolpe lehorrak ematen ditu mindutako tokian. Hernaniko Kimera fisioterapia zentroan ere hasi nintzen, Txelu korrikalari lagunaren bitartez. Lesioa sendatzen

"KORRIKA EGIN GABE ZERBAIT FALTA ZIDALA SENTITZEN DUT, EZIN DUT EGON"

XABIER BARBERENA

hasi zen pixkanaka, baina oraindik hor nabil, zaintzen, osatzen. Orain ja ez dut minik nabaritzen, eta sentsazio ona da. Jaikitzean sentitzen dut apur bat, hotzean, gunea pixka bat berotu arte. Faszitisak badakar, berarekin, zehar kalte bat. Gune hori gehiegi zigortzen baduzu ezproia ateratzen da, hezurra. Plaka bat atera zidaten, eta han agertzen zen ezproia. Hori ja abisu serioa da, ezproia leundu egin behar baita hazten ez jarraitzeko. Ia urte erdiko baja hartu nuen lanean, baina talka-uhin trata-

"55 URTEREKin MINIK EZ EDUKITZEAREKin NAHIKOA ZAIT"

XABIER BARBERENA

menduari esker, ezproia berez berdindu zen.

Zein da lesioetako gauzarik txarrena?

Sei urte daramatzat dagoeneko lesioak kateatzen. Batetik osatzen hasi, eta beste bat jasan, hori txarrena. Orain argia ikusten ari naiz pixkanaka. Ea segida ematen diodan, baina ez daukat fede handi-handirik, pauso bat aurrera eta bi atzera eman izan ditudalako sarri. Korrika egitea droga baten parekoa da niretzat. Korrika egin gabe zerbaite falta zaidala sentitzen dut, ezin dut egon. Bizikleta estatikoa badaukat etxean, baina ez du hutsunea betetzen, ezta gutxiago ere! Zoru bigunean nabil korrika momentuz.

Baina osatu zara, pixkanaka...

Pixkanaka hasi nintzen presatzen. Aurrena 20 minutu, gero

ordu erdi, suabe-suabe. Egund bat jardun, bi atsedena hartu. Ordu erdi, berrogei bat minutu egiten ditut dagoeneko, eta serie batekin bukatzea gustatzen zait, gorputza zukutzeko.

Lehiaketara ere itzuli zara, behintzat. Zilarrezko domina lortu berri duzu Durangoko Euskadiko Txapelketan, 1.500 metroko proban, zure kategorian.

Bai, eta urrezko domina ere ez nuen urrun eduki. Ez neukan parte hartzeko asmorik, baina Idoia Esnaola fondistak erdi txantxetan erdi serio esan zidan, txapelketan apuntatu egingo ninduela, serie bat 03.25ean egin nuela ikusi ondoren. Nik ezetz esan nion, baina izen-ematea egin zuen, eta horri esker lehiatu nintzen Euskadiko txapelketan.

Ze sentsazio, bigarren postua lortuta?

Askatasunaren pareko zerbaite, esango nuke. Ondorengoari beldurra, ea berriz ere mina agertuko ote zen, baina ez dut oinazetik izan, ondoren. Gauzak ondo joaten direnean badaukat halako ohitura bitxi bat, kafetxo bat hartzea donut goxo batekin. Bakarren batek pentsatuko du, ez dela oso osasungarria, korrikalari batentzat, baina nik ohitura hori dut, eta ikaragarri gozatzen dudana momentua izaten da.

Eta orain zer? Ze asmo duzu etorkizun gertuari begiratuta?

Ibili nintzen bezala ibiltzea berriz ere. 55 urterekin ez dut marka berririk bilatuko. Minik ez edukitzearekin nahiko, gozatzea, ilusio apur bat edukitzea, familiarekin hara eta hona ibiltzea gustura, ez dut gehiago eskatzen. Espainiako txapelketaren bat, Europakoren bat... Osasuna, aurrena.

**Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.**

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN

w w w . a i u r r i . e u s



Urnietako
udala



Racing Club de Ferrol taldea (1971-1972), Bigarren mailan. Zutik: Crespillo, Pepiño, Arturo, Carlos, Arroyo eta Rivera. Makurtuta: Amado, Roberto, Goikoetxea, Erviti eta Castro II. EQUIPOSDEFUTBOL2.BLOGSPOT.COM

Goikoetxea Andoaingo futbolari ohia zendu da

FUTBOLA Euskalduna taldean lehen urratsak eman zituen, eta handik Logroñesera. Hiru denboralditan 40 gol sartu eta Lehen Mailara igotzea lortu zuen orduan. Espainian zehar hamaika taldetan aritu zen, besteak beste, Betisen eta Alavesen

Erredakzioa ANDOAIN

Aste honetan zendu da Migel Goikoetxea andoaindarra, 71 urte zituela. Iraganen profesional mailako futboleko ibilbide oparoa egin zuen, Espainiako hainbat taldetan. Euskaldunak hasi zuen ibilbidea, eta jarraian hamaika taldetan aritu zen: Logroñes, Betis, Alaves, Melilla, Rabat eta Murtzia. Betis taldearekin lehen mailan aritzeko aukera izan zuen.

Euskaldunako jubeniletan hasi zuen kirol ibilbidea. 1,77 metroko mutilak agudo erakutsi zuen aurrelari goleatzailearen sena, eta ia beti bederatzi edo hamar zenbakia bizkarrean zeramala zelairatu izan zen. 1966-1967an, Euskaldunarekin hirugarren mailan Juan Maria Lasa entrenatzailearen agindutara jokatu ostean, Logroñesek fitxatu zuen. Ordurako, Real Sociedad ere atzetik zebilkin. Aiurriri 2012ko elkarriketan adierazi zionez,



AIURRI

Xabier Exposito Realeko ordezkaria bere etxera eskaintza egitera etorri arren, nahiko jarre- itxia sumatu zuen: "garai hartako Realean diru gehiago ordaintzen zieten kanpotik zetozeinei etxeko jokalariei baino".

Logroñesen hiru denboraldi jokatu zituen (1968-1971), eta horietan bi igoera ezagutu zituen,

hirugarren mailatik bigarren- era eta bigarrenetik lehen mailara. 40 gol sartu zituen hiru denboraldi horietan; Logroñeseko zaletuentzat ohikoa egin zen partidu berean Goikoetxearen bi edo hiru gol ospatzea. Garai hartako oroitzapen gozoa gorde zuen Goikoetxeak: "Oso urte onak izan ziren. Taldea bigarren mailatik lehenengo mailara igotzea lortu genuen eta hura izugarria izan zen. Jendearen poza, ospakizunak..., oso polita izan zen hura guztia. Autobusean zeharkatu genuen hiria eta jendearen harrera izugarri izan zen. Kirol mailan egindako lorpenik handienetakoa han bertan lortu nuen: izan ere bigarren mailako goleatzailearik onena izatea lortu nuen hogeita lau gol sartuta".

Handik Sevillara abiatu zen, Betisekin lehen mailan jokatera. 70eko hamarkadan talde ugarietan jokatu zuen.



Lau finalistak podiumean, aurreko asteburuan. UTS

Ansa eta Labaka azpitxapeldun Sagardoaren txapelketan

ERREMONTEA Urrizak eta Zalduak irabazi dute Sagardoaren txapelketa Ansa-Labaka bikotearen aurka

Erredakzioa HERNANI

Partida oso berdindua izan zen eta Erremontari telebista saioko ikusleentzat, partida bizia. Maila beretsuan aritu ziren Urriza eta Ansa aurrekaldean; Zalduak ere borroka polita izan zuen Labakarekin atzealdeko lerroetan.

Lehen tantoetan 4-0 aurreratu ziren Urriza eta Zaldua, baina Ansak eta Labakak berehala eman zioten buelta markagailuari eta 4-5 jarri ziren aurretik. 15-15eko berdinketa iritsi arte aldaketa asko egon ziren markagailuan eta bikoteek bere

mementoak eduki zituzten. Bapatean, bost tantoko alde lortu zuten Bereziartuako ordezkariak eta abantaila mantentzea lortu zuten; alderik handienarekin itxi zuten finala (30-22).

Ansak eta Labakak partida nahikoa ona jokatu zuten, baina mementorik garrantzitsuenan ezin izan zuten aurrerapausoa eman. Urnietarrak 13 tanto egin zituen; hitz gutxitan, aurrelarien arteko finala izan zen. Atzelariei dagokionez, berriz, Labakak defentsa ona erakutsi zuen eta bi tanto egin zituen sakez, baina ez zuen Zaldua menderatzea lortu.



BURUNTZALDEA IKT

Izaro Audikana maila onean

IGERIKETA Donostiako Paco Yoldi kiroldegian lehiatzen aritu ziren Buruntzaldea Igeriketa Taldeko hainbat kide, tartean Izaro Audikana andoaindarra. Zoritzarrez, ezin izan zuten finalerako txartela lortu, baina marka pertsonal berriak eskuratu zituen 50 eta 100 metroko bular probatan.



Mikel Iturri urnietarra. EUSKALTEL EUSKADI

Mikel Iturria Frantzia aldean; Mikel Alonso Eslovenian

TXIRRINDULARITZA Euskaltel Euskadiko bi urnietarrak proba ezberdinetan lehiatzen ari dira, aste honetan

Erredakzioa ANDOAIN

Euskaltel Euskadi taldean bi urnietar daude, eta egun hauek biak ere lehiak ari dira. Mikel Iturria Frantzia aldean dabil. Asteartean Mont Ventoux lasterketa egun bakarreko proban lehiatu zen. Proba oso gogorra da, beldurtzeko moduko mendateekin: Madeleine, Gabelle, Rocher du Cire eta Ventoux, azken hori bi aldiz igo behar izan zutelarik. , eta aurtengoa hirugarren edizioa izan da. 154 kilometro eta 4.400 metroko desnibela duen lasterketa gogorra da.

Ostegunean hasita, Route D'Occitanie lasterketan ariko dira. Iturriarekin batera, hango errepideetan ariko dira Gari Bravo, Iker Ballarin, Joan Bou, Mikel Bizkarra, Txomin Juaristi eta Unai Cuadrado.

Azanzak ezarritako helburuen artean, lasterketan lehenengo

ITURRIA MONT VENTOUX EGUN BAKARREKO PROBAN ETA OKZITANIAKO TOURREAN ARIKO DA

hamarren artean txirrindularen bat sailkatzea dago.

Mikel Iturria udaberrian Espainia aldeko lasterketan ondo aritu da, bereziki Mallorcako Challengean. Etapa batean hirugarren sailkatu zen.

Bitartean, Mikel Alonso Eslovenia aldean dabil. Ekainaren 9tik 13ra jokoan da Eslovenia-ko Tourra, bost etapako eta 800 kilometrotik gorako itzulia. Alonsoren taldekideak Antonio Angulo, Antonio Soto, Dzmitry ZhyHunou, Jokin Aranburu, Julen Irizar eta Peio Goikoetxea dira. Ihesaldien bila aritzea helburu dute.




EUSKALTEL EUSKADI



Henriksen, Etxeberrietan. AIURRI

Henriksen eta Gabirondo Euskal Herriko bakarkakoan

Zaldibian Euskal Herriko XII. Bakarkako Ligako lehen saioa jokatu zen joan den asteburuan, Almitzak antolatuta. Helduen mailako sailkapena: 1. Migel Mari Jauregi; 2. Julen Gabirondo; 3. Jon Otegi. Nesketan: 1. Alaitz Imaz; 2. Ainara Otamendi; 3. Malou Henriksen. Altzon jokatu da hurrengo proba, datorren ekainaren 13an.



Iñigo Duarte lehiatzen. ZUMEATARRA

Iñigo Duartek eta Javi Duquek debuta egin dute mendi triatloian

Xabi Ugarte, Iñigo Duarte eta Javi Duque Aragoi aldean aritu dira lehiatzen, Cros Comarca Cinco Villas triatloian. Iñigo Duarteren lehen lasterketa zen arren, seigarren postuan sailkatu zen. Ez hori bakarrik, Zumeatarrakoei taldeko sailkapenean brontzea eskuratu eta podiuma besarkatu zuten. Sasoi betean daudela nabari da.



Gabirondo Xoxokako jaietan segan. AIURRI

Gabirondoren eta Zalduaren arteko desafioa iragarri dute

HERRI KIROLAK Ekainaren 26a, izango da, 17:30ean hasita, Leitzako Martin Borda baserriko zelaletan

Erredakzioa ANDOAIN

Herri kirolekin albiste dago. Martin Borda baserriko belazeetan hitzordua adostu dute bi kirolariek, eta ikuslegoak desafioaz gozatzeko aukera izango du. Berez, Azpeitiko Añotako zelaletan egiteko zen dema, baina jendea biltzeko mugen aurrean apustua Nafarroan jokatu da. Hitzordua ekainaren 26an izango da, 17:30ean hasita, Leitzako Martin Borda baserriko belazeetan. Bi kirolariek adostutakoaren arabera, lanaldia

bi ordukoa izango da: 20 kana erdiko aurrea, eta bi orduraino geratzen zaien denbora segan. Kilo gehien biltzen duenak irabaziko du desafioa. Sei mila euro jarri ditu bakoitzak.

NAFARROAN IKUSLEEN AURREAN EGITEKO AUKERA IZANGO DENEZ, DESAFIOA LEITZAN EGINGO DUTE



andoaINDARRA
euskaraz

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 10

ANDOAIN Tertulia

Emakume musulmanak: Erronkak eta lorpenak gure gizartean. Tertulia feminista, Berdintasun sailaren eskutik.

18:30, Bastero.

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo Udal musika eskolako kideen eskutik, emanaldiak aste osoan zehar. Osteguneko azkena izango da. Emanaldia ikusteko gonbidapena beharrezkoa da.

18:30, Sarobe.

AMASA Sari banaketa ekitaldia

111 Akademia-saria, Larramendi Bazkunaren eskutik. Pello Lizarralde jasoko du saria, "Argiantza" eleberriagatik.

19:00, Hika txakolindegia.

URNIETA Aisialdia

Gaztelekuak 11-16 urte bitartekoei zuzendutako egitaraua aurkeztu du. Informazio osoa: 608928311 - 683610205

Izena ematea: Ekainak 9-17.

ANDOAIN Euskara

AEK-k mintzataldeak osatu nahi ditu udan. Parte hartzea doakoa da. Informazio gehiago Andoaingo AEK euskaltegian: 943 59 17 04.

Azken eguna: Ekainak 11.

URNIETA Aurre-matrikulazioa

2021-2022. ikasturtean euskara ikasteko aurrematrikulazio-epaia zabalik dagoela adierazi dute AEK euskaltegitik. urnieta@ae.eus / 662 338 747.

Azken eguna: Ekainak 25.

OSTIRALA 11

ANDOAIN Musika

Andoaingo Udal Musika Eskolako hiru abesbatzen kontzertua.

18:30, Bastero.

ANDOAIN Erakusketa

Andoaingo Rock Jaialdia irudietan. Argazki erakusketak bi ardatz izango ditu: Andoaingo Rock Jaialdia eta Nafarroa Plaza. Argazki guztiak J.A. Areta Gofñi "Juxe"renak dira.

Bastero.



Aforoa mugatua denez, sarrerak agortzeko aukera handiak daude. AIURRI

ANDOAIN Bertso saio feminista

Punttuka eta Traka taldeak elkartu eta bertso saio feminista antolatu dute, igande honetarako. Gai jartzaile lanetan Maddi Etxeberria ariko da. Bertsolariak: Maddi Aiestaran, Eli Pagola, Maider Arregi eta Nerea Ibarzabal.

Ekainak 13, igandea. 12:00, Goiburuko San Esteban ermita.

LARUNBATA 12

URNIETA Musika

Amak musika taldea: Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kristina Solano.

19:00, Sarobe. Sarrerak agortuta.

URNIETA Deialdia

Juankar Alberdiren omenezko bazkaria, ekainaren 19an. Txartelak erosteko azken eguna da.

Xauxar, Matxo, Kantoi.

IGANDEA 13

ANDOAIN Musika

Udal Musika Eskolako Banda.

12:30, Bastero.

ASTELEHENA 14

ANDOAIN Kale Giroan

Doakoak dira udako ekitaldietarako emanaldi guztiak, baina gonbidapena eskuratu beharra dago.

Bastero, Kutxabank.

ASTEARTEA 15

ANDOAIN Tertulia

Genero-identitatea euskal dantzan. Oier Araolaza adituaren eskutik. Urki dantza taldeak antolatuta.

19:00, Bastero.

LARUNBATA 19

ANDOAIN Musika

Andoaingo Rock Jaialdia:
12:30 Audience Ondarreta.
15:30 Rudiger. Ondarreta.
17:45 Angel Kaplan. Bastero.
19:00 Inoren ero ni. Ondarreta.
21:00 Belako. Bastero.

Bastero, Ondarreta ikastetxean.

IGANDEA 20

ANDOAIN Deialdia

Pintura, literatura eta argazki lehiaketa, Hogar Extremeñoren eskutik. Oinarriak euren Facebook orrialdea eskuragarri.

Azken eguna: Ekainak 20.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El año de la furia**

Lar., 12. 19:30,
22:00.
Ig., 13. 19:30.
Astel., 14. 19:30,
22:00.

Poliamor para principiantes

Lar., 19. Saioak ez.
Ig., 20. 19:30.
Astel., 21. 19:30,
22:00.

Nur

Ig., 20. 12:00.



SINOPSIS

**El año de la furia**

Zuzendaria: Rafa Russo. **Aktoreak:** Alberto Ammann, Joaquín Furriel, Daniel Grao, Sara Salamo, Maribel Verdu. **Herrialdea:** Espainia (2020). **Iraupena:** 102 min. **Generoa:** Thriller, drama.

Bi gidoilarien estuasuna

Montevideo, 1972. Herrialdea diktaduraren amildegira begira dagoen bitartean, Diego eta Leonardo, telebista-saio ezagun bateko bi gidoilari, beren osotasuna mantentzeko borrokan ari dira, nagusien

presioen aurrean, beren satira politikoen garrasiak apaldu ditzaten eta herrialdearen kontrolaz jabetzen ari diren goi militarrek mindu ez ditzaten. Gertaera historiko batean oinarrituriko filma da.

SINOPSIS

**Poliamor para principiantes**

Zuzendaria: Fernando Colomo. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Gidoia:** Toni Acosta, Quim Avila Conde, María Pedraza, Luis Bermejo, Cristina Gallego, Inma Cuevas... **Generoa:** Komedia, erromantikoa. **Iraupena:** 97 minutu.

Familia oinarri duen komedia

Satur eta Tina senar-emazteak dira. Amak dirua eramaten du etxera, eta aita arduratzen da

etxeaz eta haurraz. Kontua da semeak 28 urte dituela. Ganorabako youtuberra, gainera.

Zinema saioak, garai batean bezala

Normaltasun berria egunez egun nabaritzen ari gara. Zinemazaleek ordutegi klasikoaz gozatzeko aukera izango dute, asteburu honetan hasita. Iluntzeko saioa ordu erdiz atzeratu dute. Emanaldiak 19:30ean hasiko dira. Gaueko 22:00etan emanaldi gehiago izango dira, larunbatean eta astelehenean.



AIURRI

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Josu Rabadan Larrea
Gure etxeko txikiak, 2 urte beteko ditu igandean ekainak 6an. Jarraitu orain bezain zoragarria maitea. Muxu goxo pila.



URNIETA
Ekhi Astiasaran Azkue
Zorionak txapeldun! Ekainaren 14an 8 urte. Zorionak txapeldun! Segi beti bezain alai. Etxekoen partetik muxurik gozoena.



AIURRI

Udal antzerki tailerra

“UBU las sonrisas son risas” izeneko antzezlanaren prestatzen ari da Urnietako Udal antzerki tailerra. Ekainaren 18an egingo dute jendaurreko emanaldia, Saroben. Emanaldia 19:00tan hasiko da eta gonbidapenak eskuratzeko aukera datorren astelehenean zabalduko dute.



AIURRI

Juankar gogoan hartuko dute

Ekainaren 15ean gogoan hartuko dute Juankar Alberdi Martiarena urnietarra, 19:30ean San Juan plazan hasiko den ekitaldian. 1988an hil zen Herrera de la Manchako espetxean. Bere garaian salatu zuten, muturreko bizi baldintzen ondorioz hil zen. 9 urte zeraman preso.

Master Class berria Maizorriren eskutik

Duela aste batzuk antolatutako Master Class-aren arrakasta ikusita, Maizorri txalaparta eskolakoek bigarren tailer bat antolatzea erabaki dute. Elkar-tean adierazitakoaren arabera, "tailerra honakoa izango da: Erritmoen ezagutzak eta beraien arteko loturak. Ekainaren 20ean hasiko da, 10:00tan. Prezioa 10 eurokoa da. Info: 677 153 442.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK
Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 / 665 719 827**

SALGAI
Lokal komertziala **salgai** Andoingo Juan Bautista Erro kalean. 51 m², solairu bikoitza egiteko aukera. 61.000

euro. **687 851 740** Edurne.

EROSI
Andoain inguruan **lur sail** eder baten bila nabil. Cesar Sistiaga. **620 720 694**

MERKATU TXIKIA:
diseinua@aiurri.eus **619 163 537**
Arantzibia 4-5, behe. ANDOAIN

"Notre Dameko plazan" antzezlanaren, igandean Urnietan

Egapexou taldearen eskutik, Etxeberri plazan. Eguerdiko 12:00tan hasiko da antzezlanaren

Xabier Lasa URNIETA
Olatz Iturzaeta, Elaia Marruedo, Vanesa Sanchez eta Liam San Jose aktoreek osatzen dute Egapexou taldea. Joxe Mari Berasategi zuzendariaren hitzetan, "ipuinetako maitagarrien bai-

laran gertatzen da istorioa. Misterioa eta abentura dira nagusi lurralde horretan. Horrela, Izaro abeslaria izan nahi duen izaki maitagarriak Ponpadurreko Markesarekin eta honen laguntzaile fidela den Franzua-

rekin topo egingo du, eta umorez eta misterioz jositako egoerak biziko dituzte elkarrekin".

Berasategik Urnietako antzerkizaleei Etxeberri plazara gerturatzeko gonbitea luzatu die, "eguerdi-pasa polita egin dezakete plazan. Ordu erdiko antzeppen dibertigarria ikusi ahal izango dute, bermuta ere har dezakete hango terrazetan, bide batez. Ziur ez direla damutuko". Antzezlanaren AEK-ko egoitzan ekainaren 15ean estreinatu zuten, arrakasta handiz.



Antzerkiaren gozatzeko aukera Urnietan, igande honetan. EGAPEXO

“AEKn irakaslerik onenak topatuko ditu herritarrak”

IHINTZA TELLABIDE URNIETAKO AEK-KO ARDURADUNA

Aurki amaituko da udako ikastaroetan izena emateko epea, baita datorren ikasturtera begira, aurrematrikula egiteko aukera ere

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ikasturtea amaitzeaz bada ere, AEK-k ez du bere jarduna eten- go, ate joka baitago uda. Urtero lez, udan ere hamaika ikastaro antolatu dira euskaltegiaren eskutik, Mintzalagun egitasmo- tik hasi eta udako barnetegiak bitarte. Ihintza Tellabide Urnie- tako AEK-ko arduradunak azal- du ditu nondik norakoak.

AEKn uda batek bik beste balio duela diozue. Zergatik?

Ikasturtearen hasieran AEKn irakasle batek bik beste balio duela genion era berean, orain gurean uda batek bik beste balio duela diogu... AEKn irakas- lerik onenak topatuko ditu her- ritarrek, irakasten dakitenak eta, gainera, zuk ikastea nahi dutenak. Gure jardunak oinarri duen metodologia komunikati- boari begi-kliska bat egin nahi izan diogu.

Zein aukera izango dute herritarrek eguzki berotan ere euskara ikasten jarraitzeko?

Hernanialdeko AEKn aurrez aurreko taldeak izango ditugu irailean, B1, B2 eta C1 maileta- koak. 80 orduko ikastaro trinkoa eskainiko dugu nahi duen oro-



Aurrez aurreko taldeetan izena eman nahi dutenek uztailaren 19a baino lehen egin beharko dute. AEK

rentzat eta 30 orduko ikastaroa 20/21 ikasturtean euskaltegiaren batean, ez derrigorrez gurean, aritu den edonorentzat. Horrez gain, autoikaskuntzan aritzeko aukera ere izango da, B1, B2, C1 eta C2 mailetan, uztailaren eta irailean. Azkenik, mintzataldeak ere martxan jar daitezke, Min- tzalagun egitasmoen barnean. **Euskara maila guztiei bideratuta al dago?**

Udako eskaintza B1 mailatik gorakoentzat pentsatuta dago Hernanialdean, baita, bereziki, urrian azterketa gainditzeko azken bultzadaxoa behar dute- nentzat ere. Maila horietan au- rreikusten ditugu ikasteko in- teresa eduki dezaketen pertsona gehien, gure kasuan. Dena den, beste maila batzuetako eskain- tza behar duena inguruko her- rietako AEK euskaltegiak

bideratuko dugu, horietan dagoen eskaintzak osatzen baitu gurea. **Gainera, eskaintza aberats horrek aukera bermatzen du ikasgela ez den beste giro batean euskaraz trebatzeko, ezta?**

Mintzalagun egitasmoak euska- raren erabilera informala eta ikasgelatik kanpokoa lantzeko berebiziko garrantzia duten tresnak dira, ikasturte osoan martxan egoten direnak aspal- diko urteetan. Partaide gehienak urritik ekainera aritzen diren arren, udan ere eskaintza egiten dugu, ikasleek modu autonomoan eta ez akademikoan beren hiz- kuntza-maila hobetu dezaten eta nahi eta behar dutena adieraz- teko gaitasuna landu dezaten, euskaraz bizi nahi duten herri- tarrekin batera.

Iaz, pandemiak gogor kolpatu al zuen AEK-k udari begira duen es- kaintza?

Iazko ikasturtearen bukaeran berrekin ahal izan genion aurrez aurreko jarduerari, eta, alde horretatik, ezarritako protoko- loek eragindako zailtasunak gorabehera, ohiko eskaintzara itzuli ahal izan ginen. Barnete- giak, ordea, ezin izan ziren gau- zatu iazko udan, eta egia da hori kolpe latza izan dela, AEKrentzat eta ikasleentzat, barnetegiak duten funtzioa ordezkaezintzat har daitekeelako ia.

Aurten, birusari aurre egiteko neu- rriek asko baldintzatuko al dute jarduna?

Ezetz espero dugu. Ezin alde batera utzi maskarek dakarten

"AEK-N AURREZ AURREKO TALDEAK IZANGO DITUGU, IRAILEAN"

IHINTZA TELLABIDE

komunikazio-defizita, hori begi bistakoa da euskaltegiaren barruan, baita hortik kanpo ere, baina oztopo horiei imajinazioz eta aldarte onez aurre egiten saiatzen gara.

Noiz amaitzen da izena emateko epea? Horretarako, nora jo dezake herritarrek?

Iraileko aurrez aurreko talde- tan izena eman nahi dutenek uztailaren 19a baino lehen egin beharko dute. Autoikaskuntza- modalitatean aritu nahi dutenek, aldiz, ekainaren 30a baino lehen matrikulatu beharko dute. Izena eman nahi dutenek Hernanial- deko AEK-ren zentroetako ba- tera jo behar dute

Bukatzeaz da 21-22 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea. Zein abantaila dituzte herritarrek, izen- ematea orain eginez gero?

Onura ugari ditu; nagusienak honako hauek dira: ikasturte honetako prezioa mantenduko zaie aurrematrikulatutakoiei, igoerarik gabe, eta, gainera, %5eko deskontua aplikatuko zaio zenbateko horri. Horrez gain, taldeak osatzerakoan, da- goen toki-kopurua, ordutegia eta modalitateari dagokienez, lehentasuna izango dute aurre- matrikulatutakoek. Ordaintzeko modu malguagoa ere izango dute. Aurrematrikula egiteko aurretik aipatutako euskaltegiakotako ba- tera gerturatu behar da ekaina- ren 25a baino lehen, eta bertan aurrematrikula-fitxa bete. On- line ere egin daiteke aek.eus webgunean.

"ABANTAILA UGARI DITU MATRIKULA ORAIN EGITEAK"

IHINTZA TELLABIDE



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

- **Asteroko zozketa: KMO produktuez betetako otarra.**
- **Irabazleak: Iraola, Arratibel, Aranburu, Izaro.**

